



Kaldereroen hamasei konpartsa ibiliko dira Donostiako auzoetan. ARKAITZ ALMORTZA MURO / IRUTXULO-KO-HITZA

Inauterien atarian

Zartagin eta mailuei kolpeka, kaldereroek moztorro garaiaren etorrera iragarriko dute gaur Donostian • Inude eta artzainak bihar aterako dira

Andoni Imaz

1 Donostiako kaleetako burrunbak inauteriak iragarriko ditu asteburu osoan, nahiz eta oraindik hilabete falta den moztorroak soinean jartzeko. Oraingoan, kaldereroen konpartsetako kideek zartaginak eta lapikoak hartuko dituzte eskuan, hiriko kaleak zeharkatu eta festa hotsa zabaltzeko. Denera, hamasei konpartsa ibiliko dira auzoetan barrena.

Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak elkarretaratzea egingo du Fermin Kalbeton kalean gaur, 21:30ean. Handik ordu laurdenera hasiko dute desfilea, eta hiru ordutik gorako bi-dea egingo dute Parte Zaharreko kaleetan. Hainbat pertsonaia egongo dira haien artean: Asier Garaialde izango da aurtengo erregina, eta Izaskun Larruskain eta Miren Sagarzazu, berriz, dama.

Laurehun pertaide inguru ariko dira bueltaka, laurehun zartagin eta mailurekin, hemeretzi tributan banatuta. Auzo eta elkarte

askotako herritarrak aterako dira kalera. Zalditeria izango dute berrekin, haur taldeak, gurdia eta gaurdiko txaranga.

Ibilidearen erdian, ordea, geldialdia egingo dute Hungariako kaldereroek. Musika eskolako banda jotzen ari dela, kanpamentua jarriko dute Konstituzio plazan, 22:00etan. Han, konpartsa-ko erreginak Donostia agurtzeko hitzaldia emango du, gero kide guztiak errepertorio osoa kanta dezaten. Orduan entzungo dira plazan *Begi urdin bat*, *Hungariako kaldereroak*, *Hungariako kantua* eta *Mazurka*.

Inude eta artzainak

Hungariako kaldereroen konpartsak 1884an desfilatu zuen aurreneko aldiz, La Union Artesana eta La Fraternal herri elkarteek antolatutako inauterien festan, Raimundo Sarriegiren musikak eta Adolfo Combaren hitzek lagunduta. Halere, hortik bi urtera, Victoriano Iraolaren *Begi urdin bat* abestia jotzen hasi ziren.

Asteburuak protagonista gehiago ere izango ditu. Bihar ere

jende ugari ibiliko da Parte Zaharrean barrena, baina ez dira kaldereroak izango, inudeak eta artzainak baizik.

Eguerdian abiatuko da 150 pertsona inguruz osatutako konpartsa bat: 30 inude eta artzain bikote ariko dira dantzan, eta 60 partaidea danborrarekin. Kaldereroek bezala, haiek ere badituzte beren pertsonaia: alkatea eta emaztea, idazkaria, gotzaina eta apaiza, besteak beste.

Raimundo Sarriegiren errepertorioarekin aritzen dira inude eta artzainak ere. Danborrarekin laguntzeko pieza egokiak direnez gero, danborrari talde bat prestatu zuen Kresala elkarteak. *Inudeen konpartsa* da kalejirarik ezagunena: halako batean, inudeek panpina gorantz bota, eta artzainek, festa oihiu batez, salto egiten dute. Gorteatze dantzek jarriko diote giroa igande hotzari.

Kaldereroak eta inude eta artzainak

Gaur, 21:30ean, kaldereroak Donostian. Bihar, 12:00etan, inude eta artzainak Donostian.



Azoka

Energia berdearen erakusleihoa

2 Ered jasangarrien inguruan lanean ari den sektorearentzat, urteroko topalekua izaten da Berdeago egitasmoak Durangoko Landako gunean antolatzen duen azoka. Bi alditan irekiko dituzte ateak: asteburu honetan, energiaren ariko dira, eta, hurrengoan, naturaz. 127 enpresaren proiektuak egongo dira ikusgai gaur eta bihar. Eraginkortasun energetikoa, mugikortasun jasangarria eta ingurumen berrikuntzak izango dira gai nagusiak. Sektoreko profesionalak biltzeko eta kontsumitzaileek informazioa jasotzeko baliatu nahi dute azoka. Hitzaldiak egongo dira goiz osoan.

Berdeago Energy

Gaur, 10:00etatik 20:30era, eta bihar, 10:00etatik 20:00etara, Durangoko Landako gunean (Bizkaia).

Azoka

Opilak eta erroskillak barra-barra

3 Gozoa izaten da San Blas eguna. Iruñean aski erroturiko ohitura da egun horretan San Nikolas plazan paratzen den azoka. Bihar, opilak, goxokiak eta pastak salduko dituzte egun osoan, horretarako propio paratuko dituzten 21 postuetan. Denetariko gozoak salten dira azokan, baina ohikoenak txantxigorri opila, San Blas erroskillak eta opilak, eta goxoki gorri handiak izaten dira. Horrekin batera, eguerdian sokadantza plazaratuko du Duguna dantza taldeak.

San Blas eguneko azoka

Bihar, 09:00etatik 21:00etara, Iruñeko San Nikolas plazan.

Ibilaldiak

Hezeguneak eta anfibioak ezagutzen

4 Hezeguneen eguna da gaur, eta Aranzadi zientzia elkarteak egitarau berezia antolatu du astebururako. Bi mendi itereara antolatu dituzte: bata, Donostian, Uliamendian, Uliamendian Interpretazio Zentroarekin batera; bestea, Busturrian, Urdaibaiko Ekoetxearen bueltan. Aintzat hartu ohi ez diren hezegune txikiak garrantzia nabarmendu nahi du Aranzadi, tamaina txikiak habitat horiek duten balioaz jabetzeko. Horren berri izateaz gain, Herri Ametsa ikastetxearen inguruan eraiki den putzua garbituko dute Donostiako ibilaldian. Urdaibain, berriz, hitzaldi laburra egingo dute aurrena Ekoetxean, ibilaldi gidatuaren aurretik.

Hezeguneen Eguna

Gaur, 11:00etatik 13:30era Donostian, eta 10:00etatik 13:00etara Busturrian (Bizkaia).



Jaia

Inauterietako santa eskea

5 Santibate ospatuko dute gaur Donibane Garazin, inauterien inguruko lehen jaia. Neguaz oroitzeko ospatu izan da, eta aurturien ere irtengo dira kantuan; Garatentik abiatuko dira, 19:30ean. Zirtzilen festa izaten da Santibate, eta hala moztortuta joaten dira santa eskean, etxex etxe. Arratsaldean, poteoan ariko dira inguruko estatuetan, eta, gauean, gaztetxean elkartzeko deia egin dute, tripot jatea egiteko.

Santibate

Gaur, 19:30ean hasita, Donibane Garazin.